

0. Atarian *

Jakina denez, euskara batuan *izan/*edin* ala **edun/*ezan* aditz laguntzaileen artean aukeratzen da adizkien forma analitikoak osatzeko, **edun/*ezan* aditz laguntzaileak ergatibodun egituretan hautatzen ditugularik eta *izan/*edin*, berriz, ergatiboak ez diren egituretan —Albizu (2002ab), Oyharçabal (1989). Euskaraz orokorra den aditz laguntzaileen arteko hautaketak, alabaina, badu salbuespen arraro bat euskararen batean. Hondarribiko euskararen, perpaus ez-akusatiboetan datibo sintagmaren bat dagoenean, **edun/*ezan* aditz laguntzaileak hautatzen dituzte, *izan/*edin* aditz laguntzaileak aukeratu beharrean. Hala, *gustatzen nau*, *gustatzen dizu* edota *etorri dio* bezalako perpausak aurkitzen dira euskara honetan, eta ez gainerako hizkera eta euskalkietan orokorrak diren *gustatzen zait*, *gustatzen zaizu* edota *etorri zaio* bezalakoak. Nolanahi ere, datibo sintagmarik gabeko perpausetan, ez da inoiz **edun/*ezan* aditz laguntzailerik erabiltzen, eta *izan/*edin* aditzak aurkitzen dira salbuespenik gabe argumentu bakar bateko perpaus ez-akusatiboetan, *etorri da* perpausetan esaterako.

Aditz laguntzailearen hautaketa *bitxia* erakusten duten perpaus hauek bi eratakoak dira: batetik, *gustatzen nau* bezalakoak, alegia, *Datiboaren Lekualdatzea* —Fernández (2001), Fernández & Ezeizabarrena (2001)— jasaten dutenak; bestetik, *gustatzen dizu* eta *etorri dio* bezalakoak. Lehen perpausetan, datibo sintagmak absolutibo komunztadura erakusten du, *komunztadura bitxia* (Hale 2001) alegia, eta berez zor zaion datibo komunztadura desagertu egiten da adizkitik, komunztadura *murritzuz*. Bigarrenetan, ez da *Datiboaren Lekualdatzerik* (DL) gertatzen, datibo sintagmari arrunta zaion datibo komunztadura egozten zaio eta, baina bi egiturak, *gustatzen nau* zein *gustatzen dizu*, DLduna zein DLrik gabea, ezaugarri komun berak besarkatzen ditu, hau da, *izan/*edin* aditz laguntzaileen ordean, **edun/*ezan* halaberrez hautatzeak. Hautu honek perpaus iragankor itxura ematen die egitura hauei, baina itxura baino ez da, ez baita egitura hauetan ez ergatibo argumenturik, ez ergatibo komunztadurarik ere.

Lan honetan erakutsiko dudanez, bi gertaera azpimarra daitezke hizkera honetako datuak aztertzen ditugunean: batetik, **edun/*ezan* aditz laguntzaileen hautaketa ez datorrela horrenbeste morfologia ergatiboaren agerpenetik, baizik eta datiboaren agerpenetik, edo hobeto esanda, ergatibo zein datibo kasuek duten [+MARKATUA] tasun morfologiko bera (Albizu 2002b) nahikoa dela Hondarribiko euskaraz **edun/*ezan* hauta daitezen. Bestetik, *gustatzen nau* erako perpaus ez-akusatiboegi begira, kasua eta komunztaduraren erdibitzea berrets daiteke, lehenago objektu biko egiturei begira aldarrikatu izan dugun bezala —Fernández (2001), Fernández & Ezeizabarrena (2001).

* Lan hau Pablo Sorondo hondarribiarrari zor diot hein handi batean, bere hizkera ederrean irakatsitakoarengatik. Baita Pablo Albizuri ere, aspaldion bezala, lanaren sorkuntzan zehar ezinbestekoak bihurtu zaizkidan bere iruzkin, gomendio eta zuzenketengatik. Eskerrik asko, berriro ere, Pablo. Arrazoiak bestelakoak izan arren, bihotzez eskerrak Maitena Etxebarria, Andolin Eguzkitza, Itziar Laka, Marijose Ezeizabarrena, Fernando García Murga, Gorka Elordieta eta Joseba Lakarrari. Esan beharrik ez daukat zergatik. Lanaren erantzukizun osoa nirea beste inorena ez da. Lan hau Euskal Herriko Unibertsitatearen 1/UPV/EHU 00027.130-HA-8093/2000 eta 9/UPV00027.130-13587/2001, Eusko Jaurlaritzaren PI-1999-18 eta European Science Foundation-en BFF2002-10379-E ikerkuntza proiektuen babesean egin da.

Lanak ondoko atalak izango ditu: 1 atalean, aditz laguntzailearen hautaketa eta aditz sailen inguruan mintzatuko gara; 2 atalean, berriz, komunztaduraz eta komunztadura markez; 3 atalean, Hondarribiko hizkerako datuak aztertuko ditugu atalka, idatzizko eta ahozko lekukotasunak laburbildu ondoren (§3.1) eta (§3.2): hasieran *gustatzen nau* egiturak (§3.3), Datiboaren Lekualdatzearen ezaugarriak gogoraraziz, ondoren (§3.4) *gustatzen nauzki/naute* pluraleko absolutibodunak, eta azkenik (§3.5) *gustatzen dizu* bezalakoak; 4 atalean, azalpen formala itxuratzen saiatuko gara aditz laguntzaile bitxiei erreparatuz lehenik (§4.1) eta komunztadura eta kasuaren erdibitzea berrikusiz bigarrenik (§4.2). Azken atalak bilduko ditu lanaren ondorio nagusiak.

1. Aditz laguntzailearen hautaketa eta aditz sailak euskaraz

Euskaraz, NOR, NOR-NORI, NOR-NORK, NOR-NORI-NORK deiturak erabili izan dira aditzak sailkatzerakoan, eta deitura horiek adituaz batera, erraz datozkio burura irakurleari *etorri nai*, *gustatzen zait*, *jan dut* edota *ekarri didazu* bezalako adizkiak, hurrenez hurren.

Komunztadurari begira gaudela, NOR sailekoa da *etorri n-aiz*, NOR komunztadura erakusten duena; NOR-NORI sailekoa, berriz, *gustatzen zai-t* NOR komunztadurari NORI komunztadura gaineratzen diona, eta sail bietan, aditz laguntzaile berak ditugu, *izan/*edin* aditz laguntzaileak alegia. Komunztaduraz ari garela oraindik, NOR-NORK sailekoa da *jan du-t* adizkia, NOR komunztaduraz gain, NORK komunztadura ere erakusten duena, eta NOR-NORI-NORK sailekoa, azkenik, *ekarri di-da-zu*, oinarritzko NOR eta NORK komunztadurez gain, NORI komunztadura ere azaltzen duena. Azken bi sail hauetan, goiko NOR eta NOR-NORI sailetan ez bezala, **edun/*ezan* dira adizkiaren jokabiderako darabiltzagun aditz laguntzaileak.

Argumentuez eta berauen kasuez ari garela, bestalde, argumentu bakar bat espero dugu ABS¹ kasuaz markaturik, NOR saileko adizkiarekin batera, *ni*_{ABS} *etorri nai*z perpausean (1a) bezala; bi argumentu, ABS eta DAT kasuez markaturik, NOR-NORI saileko *niri*_{DAT} *marmitakoa*_{ABS} *gustatzen zait* perpausean (1b); ABS eta ERG kasuak erakusten dituzten bi argumentu, *nik* *marmitakoa*_{ABS} *jan dut* perpausean (1c), NOR-NORK saileko aditza dugun heinean, eta hiru argumentu, ABS, DAT eta ERG kasudunak, *zuk*_{ERG} *niri*_{DAT} *marmitakoa*_{ABS} *ekarri didazu* NOR-NORI-NORK jokabideko perpausetan. Begiratu perpaus hauei guztiei ondoko atalean (1).

- (1) a. Ni-Ø etorr-i n-aiz
ni-ABS etor-ASP NOR
- b. Ni-ri marmitakoa-Ø gusta-tzen zai-t
ni-DAT marmitakoa-ABS gusta-ASP NOR-NORI
- c. Ni-k marmitakoa-Ø jan-Ø du-t
ni-ERG marmitakoa-ABS jan-ASP NOR-NORK
- d. Zu-k ni-ri marmitakoa-Ø ekarr-i di-da-zu
zu-ERG ni-DAT marmitakoa-ABS ekar-ASP NOR-NORI-NORK

¹ Ondoko laburdura hauek erabiliko ditugu lanean zehar: ABS_D = datibo argumentuarekiko absolutibo komunztadura; ABS = absolutibo (kasua/komunztadura); ALO = alokutiboa; ARG = argumentua; ASP = aspektua; BET = izenordain betegarria; B = bokala; DAT = datibo (kasua/komunztadura); DL = Datiboaren Lekualdatzea; DM = datibotasunaren markatzailea; ERG = ergatibo (kasua/komunztadura); MARK = markatua; j.g. = elkarritzetan jaso gabeko forma.

Komunztaduran islatu behar duten argumentuen kasuen deiturez baliaturik, aurrerantzean, ABS, ABS-DAT, ABS-ERG eta ABS-DAT-ERG deiturak erabiliko ditugu NOR, NOR-NORI, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK aditz sailen ordeaz, hurrenez hurren. Deitura hauek, agian horren ezagunak izango ez zaizkionak irakurleari, erraz erabiliko ditu geroago kasuen izenekin ohitzen denean: ABS argumenturik badago, orduan ABS saileko adizkia, ABS eta ERG argumentuak badira perpausean ageri direnak, orduan ABS-ERG saileko adizkiak, eta abar.

Goiko perpausak (1) ontzat jotzen dituenak, ez du espero, ordea, ondoko perpausak (2) aurkitzea euskaraz, irakurle gehienen begietara ezin onartuzkoak direnak —izartxoaz markatuko ditugu horregatik:

- (2) a. (*)Ni-ri marmitakoa-Ø gusta-tzen *nau*
 ni-DAT marmitakoa-ABS gusta-ASP ABS-ERG
 b. (*)Zu-ri marmitakoa-Ø gusta-tzen *dizu*
 zu-DAT marmitakoa-ABS gusta-ASP ABS-DAT-ERG

Izan ere (2a) perpausean, DAT eta ABS kasuez markatutako bi argumentu daudenez, espero izatekoa da ABS-DAT saileko *zait* adizkia egokitzea bertan, *izan* aditz laguntzailekoa, ez ABS-ERG saileko *nau* adizkia, **edun* aditz laguntzaileari esker eraiki dena. (2b) perpausean, bestalde, DAT eta ABS bi argumentuak agertzen direlarik, eta ez ERG kasuaz markatutakorik, ABS-DAT saileko *zaitzu* adizkia aurkitzea espero dugu, *izan* aditz laguntzailekoa, bertan ageri zaigun ABS-DAT-ERG saileko *dizu* adizkiaren ordeaz, —azken hau **edun* aditz laguntzailekoa. Perpaus hauek, alabaina, onargarriak dira gaur egun Hondarribiko euskaraz, eta hizkera honetako hiztunen iritziekin bat egin nahi izanez gero, bi perpausei izartxo bana kendu beharko genieke. Honelako perpausak, aditz laguntzaile *bitxikoak* biak dira hain zuzen ere, lan honetan zehar aztertuko ditugunak, hizkera hau ez eze, gainerako hizkeretako datuak eta hautuak ere ulertzen lagunduko digutelakoan.

2. Euskararen komunztaduraz eta komunztadura markez

Lehen atalean (§1), ABS, ABS-DAT eta gainerako aditz sailak bereizi ditugu kontuan hartuz zein diren adizkian komunztadura egiten duten argumentuak eta zein, erakusten dituzten komunztadura markak. Oraingo honetan, berriz, komunztadura bera izango dut mintzagai nagusia.

Ezaguna da euskal aditzak ABS, DAT eta ERG sintagmekin komunztadura egiten duela. Hala, euskaraz komunztadura hirukoitza dela esan daiteke. Nolanahi ere, komunztadura markez ari garela, berez bi komunztadura mota besterik ez dugu euskaraz: komunztadura aurrizkiak, erroari aurretik atxikitzen zaizkionak, eta komunztadura atzizkiak, erroari atzetik gaineratzen zaizkionak. (3)-ko taulan ikus daitezke pertsonaren araberrako komunztadura aurrizki eta atzizkiak bi zutabetan.²

² Besterik esan ezean, pertsona-komunztadura izan behar du gogoan irakurleak.

(3)	ABS	DAT-ERG
NI	n-	-t
HI	h-	-k(-a-)/-n(a-)
GU	g-	-gu
ZU	z-	-zu

Sailkapen hau, neurri batean, behintzat, Euskaltzaindiarekin bat dator (1987: 141-142), pertsona-komunztadura markak adizkiaren a) aurrean, b) azken muturrean eta c) barnean kokatzen direla dioenean. Azken batean, adizkiaren azken muturrean zein barnean kokaturik egoteak ez du-eta esan nahi komunztadura atzizkiak ez direnik batzuk eta besteak. Nolanahi ere, badira euskalarien artean gurea ez bezalako sailkapena hirukoitza nahiago dutenak. Hualde eta Ortiz de Urbinaren euskal gramatika jaioberrian —Hualde & Ortiz de Urbina (2001: 162-166)—, esaterako, hiru komunztadura marka bereizten dira, alegia, ABS, DAT eta ERG komunztadurarenak, ez bi bakarrik.³ Sailkapen hirukoitzak, alabaina, ezkutatu egiten du DAT eta ERG komunztadura markak itxuraz bat bera direla —ikus baita Albizu & Eguren (2000), Albizu (2002b)—, eta hurrenkerari dagokionez ere, berdinak direla, batzuk zein besteak atzizkiak izanik, ezartzen diren *bigarren komunztadura markak* baitira, hau da, behin ABS komunztadura aurrizkiak ezarri ondoren egozten direnak. Begiratzea baino ez dago (4)-ko taulari, bien arteko batasun morfologikoaz ohartzeko.

(4)	DAT	=	ERG
NI	-t		-t
HI	-k(-a-)/-n(a)		-k(-a-)/-n(a)
GU	-gu		-gu
ZU	-zu		-zu

Honezaz aparte, gogoan izan behar dugu DAT eta ERG komunztadura atzizkiak, ABS komunztadura aurrizkiei gaineratzen zaizkiela beti, hau da, komunztaduraren oinarrian ABS komunztadura markak ditugula, eta beraien ostean datozela DAT eta ERG komunztadura atzizkiak, oinarritzoei gaineratzen zaizkienean, ABS-DAT ala ABS-ERG sailak sortzen dituztenak, hurrenez hurren.⁴

Jakina, DAT eta ERG komunztadura marken berdintasun morfologikoak ez du zertan berdintasun sintaktikoa izan, baina muturreko adibideetara joz gero, sintaxiaren isla gardena dirudi itxura morfologikoak. Hala ematen du, behintzat, Artiagoitiaren ondoko adibide argigarrietan —Artiagoitia (2000: 407, 41. oin-oharra):⁵

(5) a.	(Ni-ri) [Jon-i deitza]-∅ ahaztu ∅-zai-t
	ni-DAT [Jon-DAT deitza]-ABS ahaz.ASP ABS-DAT

³ Bertan, hirugarren pertsonako ABS komunztadura markatzat hartzen dituzte guretzat izenordain betegarriak direnak, alegia, /d-, z-, l-, b-/ —nahiz eta tartean /∅-/ aipatzen ez duten. Era berean, /-o-, -e/ atzizkiak ere biltzen dituzte DAT pertsona-komunztadura marken artean, baita /-te/ pluralgilea hirugarren pertsonako ERG komunztadurarako ere eta /-∅/ singularerako. Pertsona-komunztadura markak honela sailkatzeak DAT eta ERG komunztaduraren arteko ezberdintasunak azpimarratu egiten ditu, sailkapen hirukoitza ahalbidetuz.

⁴ ABS komunztadura markak oinarritzoei izateak ez du esan nahi DAT eta ERG komunztadurarenak halabeharrez aukerakoak direnik. Argi dago, kasuan kasuan, DAT komunztadura markak eta DAT kasua bera ez direla horren aukerakoak, geroago erabiliko dugun *gustatu* aditzarekin adibidez. Ezberdina izanik ere, antzeko zerbait esan daiteke ERG kasu eta komunztaduraz, zeinahi predikatu iragankorraz ari garela.

⁵ Antzeko adibideak zerabiltzan Artiagoitiak baino lehenago, Euskaltzaindiak berak ere (1985: 344).

- b. (Ni-k) [Jon-i deitzea]-Ø ahaztu d-u-t
ni-ERG [Jon-DAT deitzea]-ABS ahaz.ASP ABS-ERG
- c. (Ni-ri) faktura-Ø galdu Ø-zai-t
ni-DAT faktura-ABS gal.ASP ABS-DAT
- d. (Ni-k) faktura-Ø galdu d-u-t
ni-ERG faktura-ABS gal.ASP ABS-ERG

Bi perpaus pare hauetan —(5a,b) eta (5c,d)— argumentu komun bera dago, ABS kasuduna alegia, eta argumentu honi, DAT edo ERG argumentua gaineratzen zaio kasuan kasuan. Bestalde, perpaus guztietan salbuespenik gabe, DAT/ERG argumentuek hurrenkera bera erakusten dute ABS argumentuarekiko, biak ABS argumentuaren ezkerretara agertzen baitira, ispiluan, bien komunztadura atzizkiak erroaren eskuinetara azaltzen diren bezala. Goiko adizkien komunztadura osorik uler dadin, kontuan hartu beharra dago hirugarren pertsonako komunztadurarik ez dagoela euskaraz (Trask 1977, Euskaltzaindia 1987, Laka 1988), eta ABS argumentua hirugarren pertsonakoa baldin bada, perpaus hauetan den bezala, orduan /d-, z-, l-, b-, Ø-/ izenordain betegarriak (Fernández & Albizu 2000) ditugula adizki hastapenean —/Ø-/ eta /d-/ hurrenez hurren, (5a,c) eta (5b,d) perpausetako *zait* eta *dut* adizkietan.⁶ Izenordain betegarri hauek goiko taulan (4) aipatu ditugun lehen eta bigarren pertsonako ABS komunztadura markekin banaketa osagarrian daude.

Nekez onar genitzake adibide hauetatik atera daitezkeen ondorioak azken muturreraino eramango bagenitu, zeren litekeena bada ere perpaus hauetan zorizkoa ez izatea DAT eta ERG komunztadura modu bertsuan atontzea, atzizki bitartez alegia, eta DAT argumentua ERG bezalakoxe *subjektua* izatea, edo nahi bada, ABS baino gorago dagoen argumentua, badakigu, ondo jakin ere, gauzak ez direla beti horrela izaten. Gogoan izan behar dugu DAT argumentuari gabe, ABSri egotzi izan zaiola subjektutasuna ABS eta DAT argumentudun bestelako perpaus ez-akusatiboetan.⁷ Egia esan, zaila da DAT kasuaz eta komunztaduraz hausnartzea, DAT sintagmen izaerari buruzko galderak egin gabe, eta galdera berak ez du erantzun bat bakarra, DAT sintagmez ari garelara, behintzat.

Eztabaidaren ildo honek urrun eramango gintuzke gure mintzagaitik. Lan honi dagokionez, ez ditugu DAT/ERG kasua eta komunztadura bateratuko, ABS-DAT eta ABS-ERG sailak bat bera direla esateraino, baina ez ditugu horregatik ukatuko bien arteko antzekotasunak, antzekotasun hauen bidegurutzean sortzen direla baitirudi *gustatzen nau/gustatzen dizu* perpausak (2): ABS eta DATdun perpausak izanik ere, **edun/*ezan* aditz laguntzaileei esker eraikitzen dira, gainerako hizkeretako *gustatzen zait/gustatzen zaitzu* perpausak ez bezala, **izan/*edin* aditzak aukeratzen dituztenak, eta aditz laguntzaileen hautu arraro honengatik, ABS-ERG edota ABS-DAT-ERG sailetako adizkidun perpausak itxuratzen dituzte.

Paradojikoki, **edun/*ezan* aditz laguntzailearen hautaketa da, hain zuzen ere, (5a,c) eta (5b, d)-ko perpaus pareak elkarrengandik bereizteko erabil dezakegun ezaugarri bera, ABS-DAT sailekoek (5a,c) *izan/*edin* aditz laguntzaileak hautatzen baitituzte, ABS-ERG sailekoek **edun/*ezan* hautatzen dituzten artean. Horregatik nioen gorago bidegurutzean sortutakoak diruditelara *gustatzen nau/gustatzen dizu* perpausak: ABS eta DAT bi argumentuko perpaus ez-

⁶ Guretzat izenordain betegarriak direnak beste batzuentzat tempus edo modu markatzaile hartu behar dira, Euskaltzaindiarentzat, adibidez (Euskaltzaindia 1987: 143).

⁷ Irakurleak Artiagoitiaren (2000) liburuko 406-412 orrialdeetara jo dezake bertan aipatzen ari garen zenbait ideien eta oro har, ABS-DAT saileko aditzen inguruan argi gehiago izateko.

akusatiboak dira, baina ABS-(DAT)-ERG bi edota hiru argumentuko perpaus iragankorren itxura hartzen dute komunztaduran.

Gainerakoan, ezin ukatuzkoa da DAT argumentuaren zerikusi handia **edun/*ezan*-en hautaketan. Pentsatzea baino ez dago mintzaira honetan, DAT argumenturik ageri ezean, ez dagoela *izan/*edin* besterik, hau da, **edun/*ezan* aditz laguntzaileen hautaketa DAT argumentuaren eskutik datorrela halaberrez, eta horregatik, ez dela inoiz ere DAT argumenturik gabeko perpaus ez-akusatiboetara zabaltzen. Hala, ERG argumentua bada beste hizkeretan **edun/*ezan* aditz laguntzaileen hautua baldintzatzen duena, hizkera honetan ERG argumentuaz gain, DAT argumentuak ere hautu bera eragiten du.

Utz dezagun orain lan hipotesi hau, hizkera honetako datuen berri zehatza jasotzeko hurrengo atalean (§3). Hipotesia itxuratuz joango da datuak deskribatzen joan ahala eta mintzagai nagusia bilakatuko da lanaren azken atalean (§4).

3. *Gustatzen nau / gustatzen dizu*: irla bitxia euskararen ozeanoan

3.1. Idatzizko lekukotasunetik...

Gure aztergaia diren *gustatzen nau/gustatzen dizu* perpausen inguruko datu nagusiak erakusteko, has gaitezen idatzizko lekukotasunen berri xumea ematen. Honelako formen testigantza idatziak nahi dituenak ezinbestean jo beharko du dialektologia lanetara, bertan baitaude jasoak, hizkera edota euskalkiari buruzko xehetasunekin batera. Guztien artean, Letamendia & Sagarzazu (1992),⁸ Sagarzazu (1994) eta zer esanik ez, Yrizar (1992-II) gomendatzen dizkiogu irakurleari hizkera osoaren nondik norakoak ezagutu nahi baditu.

Gustatzen nau/gustatzen dizu egiturei dagokienez, Bonaparteren aipamena⁹ eta bere osteko testigantzen berri ematen dute Letamendia & Sagarzazuk (1992: 527) beraien lanean, eta zenbait sailletako adizkien *nahasketaren nagusitasuna* azpimarratzen dute, *kostaldeko solezismoari* (Lafitte 1944 [1979]) dagokionez, hauexek: lehenik eta behin, ABS-ERG adizkien erabilera ABS-DAT-ERG sailean, hau da, *nau*-ren erabilera *dit*-en ordeztan —edo nahiago bada, kostaldeko solezismoa objektu biko egituretan. Egitura hauek oso kontuan hartu behar dira fenomeno bere osotasunean ulertu nahi bada.¹⁰ Irakurleak Yrizar (1981-I: 70), Artola (1981: 300)¹¹ eta Etxabururen (1981: 308-309) lanetara jo dezake egitura hauei buruzko oinarritzko datuen bila Hondarribiko hizkeraz ari garela.

Sailen arteko *nahasketa* dela eta, honakoa aipatzen dute Letamendiak eta Sagarzazuk bigarrenik: ABS-ERG eta ABS-DAT-ERG saileko adizkiak erabiltzen direla ABS-DAT sailean,

⁸ Roque Jazinto de Salazar hondarribiarraren predikua da, Letamendia & Sagarzazuk (1992) diotenez, hizkera honen lehen testigantza, eta baita Gipuzkoako ipar-goinafarreraren lehenengoetakoa. Lan honetan, Salazarren predikua ez eze, Bonapartek berak zein geroago beste zenbait autorek hizkera honetan jasotako formak bildu, alderatu eta aztertzen dira.

⁹ Bonapartek jada azpimarratu omen zuen *nau* adizkiaren *erabilera gehiegizkoa* objektu biko egituretan, *dit*-en ordeztan alegia. Bonapartek kostaldeko *idiotisme marin* zeritzan honi.

¹⁰ Dena den, guk zeharka baino ez ditugu ekarriko lan honetara, honezkeroko Lekeitiokoan (Fernández 2001) eta Sarakoan (Fernández & Ezeizabarrena 2001) aztertuak baititugu eta ez baitugu orduko azalpenetan esandakoari gaineratzeko ezer berririk.

¹¹ Pasarte gozagarri bezain hunkigarria irakur daiteke bertan. Pasarte horretakoak dira ondoko hitzak: “*Ta, neri bezela masálleko bat gaxki esan bakótxian emán bihar baldin báda; hamaika partítitu bihárko lirazké (...). Iparragirre zenak “zibilak esan naute” esan zuélako zaplátetik merézi ote du?*”

alegia, *nau/dizu/dio*-ren erabilera *zait/zaizu/zaio* arrunten ordez —bestela esanda, *kostaldeko solezismoa* predikatu ez-akusatiboko perpausetan. Bigarren honetaz, oraingoan axola digunaz, bi aipamen egiten dute autoreek, Holmer (1964: 87)¹² eta Etxabururena (1981: 309)¹³ alegia.

Interesgarriena da, diotenez, indarrean daudela oraindik joera hauek, gramatikarion zereginari begira honela laburbil daitezkeenak. Lehenengo eta behin, DAT argumentua lehen pertsonakoa denean bakarrik gertatzen da ABS-ERG saileko adizkien erabilera ABS-DAT-ERG sailekoen ordez —singularrekoa denean beti (*nak/nan, náu, nazú, naziá, nauté, na(u)zkík/ñ, na(u)zkí, na(u)zkizú, na(u)zkitté*); pluralekoan, berriz, hizkera dotoreagoa egin nahi denean (*eman gattú, esan gattuztê*), —ostean, *tigú* bezalako forma arruntak.¹⁴ Eta bigarrenik, ABS-DAT sailekoen ordez, ABS-ERG sail berekoak erabiltzen dira DAT singularreko lehen pertsona denean (*nau, na(u)zki*)¹⁵ eta gainerakoan, hau da, DAT singularreko bigarren eta hirugarren pertsona denean, ABS-DAT-ERGkoak (*etórri dio, gustátzen dizú, idurítu diziá/dizié, gustátu dioté, etórri zían, idurítu zitió*n). Berezko adizkirik ez da erabiltzen, hortaz, ABS-DAT sailean.

Ez da gure asmoa ildo honetatik luzatzea. Lan hauen aipamena ezinbestekoa zaigu, baina bertara jo beharko da idatzizko lekukotasunen berri zehatzagoa jaso nahi bada. Dakusagun orain zer ikas daitekeen ahozko lekukotasunetik eta zein neurritan bateratzen den orain arte idatzizko testigantzez esandakoarekin.

3.2. ... Ahozko lekukotasunera

Gustatzen nau/gustatzen dizu perpausen lekukotasunak idatzizkoak ez ezik, ahozkoak ere badira. Izan ere, fenomeno bizi-bizirik dago Hondarribiko portuarren ahozko hizkeran, eta bertan aditzeko aukera izan dezake horretan interesa duen irakurleak, guk Pablo Sorondo hondarribiarrari esker jaso ditugun moduan.¹⁶

Gure datu-emailearen datuak, oro har, bat datoz idatzizko lekukotasunetan laburbildu ditugun joerekin. Predikatu ez-akusatiboko perpausetan, gure aztergaia direnak orain, honakoak dira irakurleak gogoan izan behar dituen oinarritzko datuak bai Hondarribiko portuarren hizkeran, Pablo Sorondo lekuko (ezkerretara), bai euskara batuaz (eskumatara).

¹² Halaxe dio hitzez hitz 161. oin-oharrean: “Iruditzen nau: *Por* iruditzen zait “*se me parece*”. *En Fuenterrabía y otras partes ya no se usan ciertas formas con objeto dativo sino que son remplazadas por formas con objeto directo, quizá por no ser distinguidas formalmente las dos construcciones en español.*”

¹³ Etxaburuk (1981: 308-309) objektu biko predikatuko perpausari buruz egiten du lehen aipamena: *dit*-en ordez *nau* (*Maixuak esan nau/Aitak esan nau*) DAT singularreko lehen pertsonakoa denean, baina *dizu, dio* eta abar, gainerakoetan. Bigarren aipamena predikatu ez-akusatiboko perpausari buruzkoa da, gipuzkera eta hondarribiko euskara alderatzen dituenean (*Bai, neri gustatzen zait baiña nere aitonari ez zaio gustatzen* versus *Bai, neri gustatzen nau baiña nere aitonari ez dio gustatzen*).

¹⁴ Bährrek ere jasotzen ditu ABS-DAT-ERG saileko adizkien ordezkiko ABS-ERG saileko adizkien aipua. DAT *niri* izanez gero, bi eratako adizkiak erabiltzen omen ziren Bährren garaian: *diak/nak, ttiak/nazkik* orainaldian eta *zian/nazun* iraganean; DAT *guri* izatekotan, berriz, *diguk/gattuk* eta *tiguk* pluraleko ABSrekin. Bährren aipamenak Sagarzazuren (1994: 620) lanetik jaso ditugu.

¹⁵ Ikus baita Fraile Ugalde & Fraile Ugalde (1996: 112-114) Oiartzungo hizkerarako. Bertan, bietara gertatzen da ABS-DAT sailaren ordezkapena singularreko lehen pertsonarekin, batetik ABS-DAT-ERG sailaz *nei pasatu izandu it* perpausuan eta bestetik ABS-ERGaz *nei enau gustatzen* bere lagunean.

¹⁶ Eskerrik beroenak eman nahi dizkiot Pablo Sorondo hondarribiarrari urriaren 18an Plentziako portuan egin zidan abegi ononarengatik. Bertan jaso nituen bat-bateko solasaldian zein galdeketa bitartez hona dakartzadan datuak, ABS-DAT eta ABS-DAT-ERG sailekoak gehienbat. Datu hauek, oro har, bat datoz Sagarzazuk Yrizarren (1992-2: 434 eta 436) lanean jasotakoekin. Bertan aurkituko ditu irakurleak guk jaso gabe utzi ditugunak, eta alderatu ahal izango ditu modu egokian Sagarzazuk zein beste zenbait autorek Hondarribiko euskaraz jasotako adizki guztiak.

(6)

P. S.	HURA	HAIEK	E.B. ¹⁷	HURA	HAIEK
NIRI	nau	nauzki naute ¹⁸	NIRI	zait	zaizkit
HARI	dio	ttio diote	HARI	zaio	zaizkio
GURI	digu	ttiu ttiu	GURI	zaigu	zaizkigu
ZURI	dizu	ttizu dizute	ZURI	zaizu	zaizkizu
ZUEI	dizia	ttizia ttizia	ZUEI	zaizue	zaizkizue
HAIEI	diote	ttioste j.g.	HAIEI	zaie	zaizkie

Datu hauek ulertzearren, gogoan izan lehenik eta behin lehen pertsonara mugatzen dela *nau*-ren erabilera, eta Pablo Sorondoren hizkeran singularrekoan baino ez dela agertzen —hau da, ez du *eman gattú* forma *dotorerik* ezagutzen. Pluraleko ABSdun perpausetan, bestalde, datuek ezberdintasun interesgarri bat erakusten du idatzizko lekukotasunetan jasotakoarekin alderatuz gero: gure datu-emaileak *naute* darabil *nauzki*-ren ordez, /-te/ pluralgiledun adizkia /-zki-/ pluralgiledunaren ordez. Adizki bat zein bestea, ERG komunztadurarik ba ote dagoen eztabaidatzeko oinarritzko datuak izango dira guretzat. Bigarren zein hirugarren pertsonarako, *dizu/dio* formak ditugu gure datu-emailearen hizkeran zein idatzizko testigantzetan, baina pluraleko ABSdun perpausetan sortzen zaizkigu berriro ere ezberdintasunak, *ttizu* eta *ttio* hizkera honetarako /-it-/ pluralgile kanonikoa dutenak *dizute* eta *diote* adizkiez ordezkatzen direnean, hurrenez hurren, gure datu-emailearen sisteman.

Hauexek dira laburbildurik eztabaidaren nondik norakoak ulertzeko funtsezko datuak irakurlearentzat, eta ondoko hau eztabaidaren muina: predikatu ez-akusatiboko *gustatzen nau/gustatzen dizu* bezalako egiturak DAT argumentuak **edun/*ezan* aditz laguntzaileak modu bitxian hautatzen dituenen sortzen dira. Ostean, jarraian aztertuko dugun *gustatzen nau* egituraz ari garela, Datiboaren Lekualdatzea deitu izan duguna —Fernández (2001), Fernández & Ezeizabarrena (2001)— biltzen zaio aditz laguntzailearen hautaketa bitxiari. Hurrengo lerroetan (§3.3), DL fenomenoari begiratu diot berriro, oraingo honetan perpaus ez-akusatiboko datuez baliaturik, eta pluraleko ABSdun *nauzki/naute/*naitu* hirukotea aztertuko dut 3.4 atalean. Azkenik, 3.5 atalean, *gustatzen dizu/gustatzen dio* egiturak dira aztertuko ditugunak.

3.3. *Gustatzen nau*: datiboaren lekualdatzeaz berriro

Aspaldi honetako bi lanetan —Fernández (2001) eta Fernández & Ezeizabarrena (2001)—, Datiboaren Lekualdatzea proposatu dut bakarka zein elkarlanean kostaldeko solezismoaren azalpen formal gisa. Hondarribiko mintzairan ere, orduan azaldutako antzera islatzen da fenomenoaren objektu biko egituretan, baina predikatu ez-akusatiboko *gustatzen nau* bezalako perpausak ere besarkatzen ditu, aldeaz aurretik aztertu ditugun hizkeretan ez bezala.¹⁹

¹⁷ Hondarribiko zenbait hizkeretan ere, honelakoxe adizkiak ere aurki daitezke —ikus Yrizar (1992-2: 434).

¹⁸ Bertan biltzen ditudan ABS pluraleko adizkietatik lehena portuarren hizkerako testigantza idatzietatik jasoak daude (Yrizar 1992-2: 434); bigarrena, berriz, Pablo Sorondorenak berarenak dira.

¹⁹ Ez da Hondarribikoa Kostaldeko Solezismoa perpaus ez-akusatiboetan ere erakusten duen hizkera bakarra. Nolanahi ere, inon aurkitzekotan, Gipuzkoako ipar goi-nafarreraren hizkeren artean izan behar duela dirudi, dela Irungoan dela Hondarribikoan. Yrizarrek (1992-2: 386), esate batera, Irungo Bidasoa eta Meaka auzoetan Artolak jasotako *zaio*-ren ordezko *dio* eta *zaigu*-ren ordezko *gattu* aipatzen ditu. Oiartzungo hizkerarako, ikus baita 10. oin-oharra.

Hondarribiko hizkeran, eta oro har, kostaldeko solezismoa ezagutzen duten hizkeretan, aditz laguntzaileak pertsona aurrizkiaren bitartez komunztadura egiten du DAT argumentuarekin. Hala, objektu biko egituretan, (7a)-koan adibidez, *niri* DAT argumentuari egozten zaion komunztadura marka /n-/ aurrizkia da, ABS komunztadurarena alegia, eta (7b)-koan ere berdin —*guri* DAT argumentuari /g-/ aurrizkia.

- (7) a. Zu-k ni-ri sagarra-Ø eman-Ø n-a-(u)-zu
 Zu-ERG ni-DAT sagar-ABS eman-ASP 1SG.ABS_D-B-(erroa)-2SG.ERG
 b. Zu-k gu-ri sagarra-Ø eman-Ø g-a-tt-u-zu
 Zu-ERG gu-DAT sagar-ABS eman-ASP 1PL.ABS_D-B-PL.ABS_D-erroa-2SG.ERG

Hau ez da, jakina, erabilera arrunta euskara gehienetan. Euskara batuan, adibidez, (7)-ko perpausen orde, (8)-ko perpausak bakarrik onesten dira. Hauetan, *niri* eta *guri* DAT argumentuei ezartzen zaizkien pertsona-komunztadura markak /-t/ eta /-gu/ atzizkiak dira, hau da, ohikoa zaien DAT komunztadurarenak.

- (8) a. Zu-k ni-ri sagarra-Ø eman-Ø d-i-da-zu
 Zu-ERG ni-DAT sagar-ABS eman-ASP BET-DM-(erroa)-1SG.DAT-2SG.ERG
 b. Zu-k gu-ri sagarra-Ø eman-Ø d-i-gu-zu²⁰
 Zu-ERG gu-DAT sagar-ABS eman-ASP BET-DM-(erroa)-1PL.DAT-2SG.ERG

(7)-ko perpausetako DAT argumentuen *komunztadura bitxiaz* (Hale 2001)²¹ gain —bitxia baita ABS komunztadura ezartzea DATEi—, badirudi DAT komunztadura, DAT argumentuari arrunta zaiona alegia, desagertu egiten dela aditz laguntzailetik. (7a) eta (7b)-ko datuei begiratu gero berriro, ez dago ez /-t/ ezta /-gu/ atzizkirik, *niri* eta *guri* DAT argumentuak ikusirik espero litekeen modura. Horregatik, *komunztadura murriztuaz* ere hitz egin daiteke, kostaldeko solezismoa definitzeko. Bi ezaugarriek, hots, komunztadura bitxiak zein murriztuak azalarazten dute DL deritzadana —ikus Fernández (2001) eta Fernández & Ezeizabarrena (2001) behar diren xehetasunetarako.

Badirudi beste alde batetik, baldintza bakarra dagoela DL gerta dadin, hau da, DAT argumentua pertsona izatea, Hondarribiko hizkeran lehen pertsonari mugatzen zaiolarik fenomeno. Horrez gain, gure datu-emaileak singularreko lehen pertsonan bakarrik ezagutzen du fenomeno, eta arrotzak zaizkio (7b) bezalakoak, datu nagusien laburpenean esan berri dudan bezala (§3.2). Gainerako hizkerez ari garela, ezberdintasunak ezberdintasun, DL ez da inoiz gertatzen DAT hirugarren pertsonakoa denean, hau da, DAT argumentua pertsona ala ez-pertsona izatea da fenomenoaren oinarrian dagoen aurkakotasuna hizkera guztietan.²²

Honaino azaldutakoa kontuan hartuz, pentsatzekoa da DL objektu biko perpausetan gertatzen bada, baldintza berberetan, predikatu ez-akusatibokoetan ere gertatu beharko litzatekeela, eta

²⁰ *Eman didazu* eta *eman diguzu* bezalakoxeak dira Azkuek Hondarribiko hizkeran ere jasotako *eman diazu* eta *eman diuzia* kanonikoak, irakurleak Yrizarren (1992-2: 434) lanean aurkituko dituenak Sagarzazuren *nazu/gattuzu* forma bitxiekin batera.

²¹ Tentuz nerabilen Hale-ren *komunztadura bitxia* esapidea DLri buruzko aurreko bi lanetan eta halaxe darabilt oraindik ere. Esapideak Ergatiboaren Lekualdatzea eta DL besarkatu nahi ditu, behin-behinean, bederen.

²² Honi dagokionez, aldakortasun parametrikoa antzematen da hizkeren artean: esate batera, Sarako euskaran bete-betean gertatzen da DL, bai lehen bai bigarren pertsonako DATEkin gertatzen baita; Lekeitiokoan edota Hondarribikoan, aldiz, lehen pertsonako DATEkin baino ez da gertatzen, hemen ere numeroaren arabera ezberdintasunak antzeman daitezkeen arren: Lekeitiokoan singularreko zein pluraleko DATEkin gertatzen da fenomeno salbuespenik gabe; Hondarribikoan, berriz, singularreko lehen pertsonan beti gertatzen da DL, eta pluralekoan, hizkera dotoregoan (Letamendia & Sagarzazu 1992).

hala da Hondarribiko hizkeran.²³ Nolanahi ere, badirudi perpaus ez-akusatiboetako DLk oso eremu dialektal jakina duela, aurkitzekotan, Hondarribia edota inguruko hizkeretan bakarrik aurki daiteke eta. Arrazoiak zein diren asmatzea ez da erraza, printzipioz komunztadura modu berean atontzen bada perpaus ez-akusatiboetan ere (9): DAT argumentuari ABS pertsona-komunztadura bitxia ezartzen zaio, eta DAT komunztadura desagertzen da aditz laguntzailetik, komunztadura murriztuz.

- (9) Ni-ri sagarra-Ø gusta-tzen n-a-u
ni-DAT sagar-ABS gusta-ASP 1SG.ABS_D-B-erroa

Baina esanguratsua dirudien beste ezaugarri bat aurkitzen dugu (9)-ko perpaus ez-akusatiboan. Izan ere, komunztaduraren ezarketa *soila* baino zerbait gehiago iraultzen da (9)-ko perpausetan, *izan/*edin* aditz laguntzaileak **edun/*ezan* aditz laguntzaileez txandakatzen direnean.²⁴ Ez dut honekin esan nahi **edun/ezan* aditz laguntzaileen erabilera bitxia denik DL fenomenoaren predikatu ez-akusatiboko perpausetan eragozten duena —horra hor, bestela, Hondarribiko lekukotasuna. Bakarrik esan nahi dut kostaldeko soletismoa fenomeno nahikoa mugatua bada berez, are mugatuagoa dela **edun/ezan* aditz laguntzaileen erabilera perpaus ez-akusatiboetan, gainerako hizkeretan nekez onartzen dena. Zaila dirudi, beraz, **edun/ezan* aditz laguntzaile eta komunztadura bitxiak bat egiteak, bidegurutze horretan sortzen badira ere (9)-ko perpaus ez-akusatiboak.

Agian, ez dugu oso urrunera joan behar (9)-ko perpausak ulertu nahi baditugu. Nahikoa zaigu pentsatzea ABS-DAT saileko adizkirik ez dagoela honelako hizkeretan, eta beraien orde besterik gabe sailetakoak erabiltzen direla besterik gabe. Litekeena da. Nolanahi ere, ikusi beharko genuke zerk ahalbidetzen duen *gustatzen nau* edota *gustatzen dizu* bezalakoan agerpena, ohikoak diren *gustatzen zait/zaizu* adizkien orde. Itzuliko gara honetara 4 atalean. Momentuz, kontuan izan hutsune soila dirudiena bi estrategia bitartez betetzen dela Hondarribiko hizkeran, orain deskribatu berri dugun *gustatzen nau* perpausarenaz eta *gustatzen dizu*-renaz, 3.5 atalean aztertuko dugunaz. Hori baino lehenago, ikus ditzagun ABS plurala denean, mintzaira honetan azaltzen diren datuak.

3.4. *Erori nauzki versus erori naute*

Gorago deskribatu dugun perpaus ez-akusatiboan (9) singularra genuen ABS argumentua. Ildo berean deskriba daitezke perpausak ABS plurala denean ere, (10)-ekoan adibidez.

- (10) Ni-ri sagarrak-Ø gustatzen n-a-u-zki
ni-DAT sagar.PL-ABS gusta.ASP 1SG.ABS_D-B-erroa-PL.ABS

Bi perpausen artean dagoen ezberdintasun bakarra numero-komunztadurari dagokio. (10)-ekoan, */-zki-/* numero-komunztadura hizkia gaineratzen zaio adizkiari, eta hizki horren bitartez komunztadura egiten du aditz laguntzaileak *sagarrak* pluraleko ABS argumentuarekin. Hortaz, */-*

²³ Hizkerari begira, alabaina, ez dirudi gauzak beti horrela direnik, aipatu ditugun Lekeitio, Sara eta Hondarribiko hiru hizkeren artean, azken honek bakarrik erakusten baitu fenomenoaren perpaus ez-akusatiboetan ere.

²⁴ DLren hipotesi soiletik, DAT argumentuak ABS komunztadura bereganatuko balu bakarrik DAT komunztadura desagerraraziz, orduan **Niri sagarra gustatzen naiz* bezalako perpausak izango genituzkeela pentsa liteke, ez *Niri sagarra gustatzen nau* bezalakoak, *gustatzen naiz* erakoak ABS komunztadurako DAT erakuts bailezake DAT komunztadura murriztuz eta *izan/*edin* laguntzaileak txandakatu gabe.

zki-/ pluralgileak ABS komunztadura azalarazten duen arren, ez du DAT argumentuaren komunztadura islatzen, ABS argumentuarena baino. Horrek erakusten digu DL egituretan ABS komunztadura bereizi egiten dela pertsona eta numeroan, ABS pertsona-komunztadurako */n-/* aurrizkia *niri* DAT argumentuari ezartzen zaiolako, ABS numero-komunztadurako */-zki-/* ABS argumentuari egozten zaion bitartean. ABS komunztaduraren banaketa bera aurkitzen digu objektu biko egituretan ere (11a) —ikus baita Fernández (2001) eta Fernández & Ezeizabarrena (2001).²⁵

- (11) a. Aita-k ni-ri sagarrak-Ø eman n-a-u-zki-Ø
 aita-ERG ni-DAT sagar.PL-ABS eman.ASP 1SG.ABS_D-B-erroa-PL.ABS-3SG.ERG
 b. *Aita-k ni-ri sagarrak-Ø eman n-a-it-u-Ø
 aita- ERG ni-DAT sagar.PL-ABS eman.ASP 1SG.ABS_D-B-PL.ABS-erroa-3SG.ERG

Kontuan izan (11b)-ko perpausa, */-it-/* pluralgileduna ez dela onargarria —perpaus honen aitatasuna Etxabururena (1981: 308) da **Aitak eman naitu* versus *Aitak eman nauzki* perpausak bereizten dituenen. Litekeena da pluralgile hau bereziki gordetzea pluraleko DAT argumentuetarako, eta */-zki-/* pluralgilea berriz, ABSrako.²⁶ Nolanahi ere, ez dira (11a) bezalakoak pluraleko ABSdun perpaus guztiak. Gure datu-emaileak, adibidez, dakien perpausa (12)-koa da eta ez (11a)-koa.²⁷

- (12) Ni-ri sagarrak-Ø eror-i n-a-u-te
 ni- DAT sagar.PL-ABS eror-ASP 1SG.ABS_D-B-erroa-PL.ABS

(12)-ko perpausetan, */-te/* da *sagarrak* ABS argumentuari dagokion pluralgilea. Itxuraz, */-te-/* pluralgilea da gure datu-emaileak ABSrekin komunztadura egiteko darabilen pluralgile ez-markatua, ez baita (12) bezalako perpausetan bakarrik erabiltzen, modu orokorragoan baino —ondoko atalean (§3.5) itzuliko naiz honetara.

Datu hauetan guztietan oinarririk, badirudi objektu biko predikatuko perpausak definitu izan ditugun modura defini daitezkeela baita perpaus ez-akusatibokoak ere, hau da, DLren argitara, itxuraketa bera baitugu bi eratako perpausetan: batetik ABS pertsona-komunztaduradun DAT argumentuak eta bestetik, ABS numero-komunztaduradun ABS argumentuak. Bada, ordea, oraindik ere zer argitu, alegia, zein den *izan/*edin* aditz laguntzaileak **edun/*ezan* aditzez txandakatzeko arrazoa. Itxuraz, aditz laguntzaileen txandakatze bera gertatzen da, eta ziur aski, arrazoi berberarengatik jarraian (§3.5) aztertuko ditugun *gustatzen dizu* puzzlearen azken alean.

3.5. *Gustatzen dizu* puzzlearen azken alea

Hondarribiko hizkeraz ari garela, *gustatzen nau* perpaus gain, badira *gustatzen dizu* bezalako perpaus ez-akusatiboak ere, hizkera honetan ez baitago DLrik ez bada lehen pertsonako

²⁵ Albizuk ohartarazten didanez, bereizketa bera gertatzen da baita Lekualdatzearen mugetatik kanpo ere *Etsaiari harmak hartzerat nindoazkon* edo *Liburu hoik irakurtzerat doatzat* (Lafitte 1944 [1979]) —ikus Hualde & Ortiz de Urbina (2001: 229-230).

²⁶ Lehenago ere esan dudana bezala (Fernández 2001, 8. oin-oharra), */-it-/* pluralgilearen erabilerak Ergatiboaren eta Datiboaren Lekualdatzeak bereizten ditu, Ergatiboaren Lekualdatzean bakarrik baitagokio ABS argumentuari eta ez komunztadura bitxiko ERG argumentuari. Datiboaren Lekualdatzeaz ari garela, berriz, pluralgilea komunztadura bitxiko DAT argumentuari dagokio salbuespenik gabe.

²⁷ Yrizarrek (1992-2: 386) *sagarrak erori naute* zein *erori nauzki* aipatzen ditu, Artolak Irungo hizkeratik jasoak biak Bidaso eta Meaka auzoetan, hurrenez hurren.

DAT argumentuekin, hau da, ez dago *gustatzen zaitu* bezalako perpausik.²⁸ *Gustatzen dizu* perpausak, DLrik gabekoak izan arren, ez dira, horregatik, forma arruntak euskaldun gehienen begietara. Bitxitasuna kasu honetan ez da komunztaduraren eraketan antzematen, aditz laguntzailearen hautaketan baizik, honelakoetan, predikatu ez-akusatiboko perpausetan orokorra den erabileraren kontra, ez baitira *izan/*edin* erabiltzen, **edun/*ezan* baizik. Ikus ditzagun (13)-ko perpausak.

- (13) a. Zu-ri marmitakoa-Ø gustatzen d-i-zu
 zu-DAT marmitakoa-ABS gusta.ASP BET-DM-(erroa)-2SG.DAT
 b. Zu-ri txipiroiak-Ø gustatzen tt-i-zu
 zu-DAT txipiroi.PL-ABS gusta.ASP (BET)-PL-DM-(erroa)-2SG.DAT

Goiko perpausetan (13), *gustatu* predikatu ez-akusatiboa ez dator *izan/*edin* aditzez lagundurik eta honelakoetan ohikoak diren *gustatzen zaizu/zaizkizu* adizkiak sortzen dira. *Izan/*edin* hautatu beharrean, **edun/*ezan* aditz laguntzaileak erabiltzen dira bertan adizkiak jokatzeko. Hori dela eta, ez dugu (13)-an espero litekeen bezala, ABS-DAT saileko aditzen jokabiderik, ABS-DAT-ERG sailekoena baino.

Ñabardura batez bereizten dira gure datu-emailearen hizkera eta portuarrena, pluraleko ABSrako duen perpausa ez baita (14b), (15) baino. Bertan *-te-* pluralgilearekin topo egiten dugu berriro ere.²⁹ Nolanahi ere, pluralgile bat ala bestearen erabilerak ez ditu gehiegi aldatzen (13b) perpausaren definizioaz esandakoak.

- (14) Zu-ri txipiroiak-Ø gustatzen d-i-zu-te
 zu-DAT txipiroi.PL-ABS gusta-ASP (BET)-DM-(erroa)-2SG.DAT-PL

Sistema osatzen joatearren, hurrengoak ere *gustatzen dizu* bezalakoxe perpausak dira, oraingo honetan hirugarren pertsonako DAT argumentudunak. Perpaus hauek bete-betean lotzen zaizkio orain arte *gustatzen dizu* perpausez esandakoari.

- (15) a. Aittonari ez dio gustatzen
 b. Aurra galdu in dio
 c. Gustatzen dio barra pixkat eittia (Yrizar, 1992-II: 449)

Honaino datu nagusien erakusgarria izan daitekeena. Has gaitezen orain datuok astiro aztertzen. Lehenik eta behin, aintzat izan behar du irakurleak guretzat eztabaidagai nagusia dena, alegia, aditz laguntzaileen txandaketa. Honelako perpaus ez-akusatiboetan **edun/*ezan* aditz laguntzaileen hautua bera nahikoa izan liteke adizkiotan nolabaiteko ERG komunztadura egon badagoela pentsatzeko. Alabaina, **edun/*ezan* aditz laguntzaileak agertzeak ez du esan nahi perpaus hauetan inongo ERG argumenturik dagoenik. (13)-koan, adibidez, DAT eta ABS argumentuak ageri zaizkigu jarraian, ez, ordea, ERGrik. Hala, (16)-ko perpausak gaitzesten ditu gure datu-emaileak.

²⁸ Banaketa hau ez da horren harrigarria, DL ezagutzen duten beste hizkera batzuetako datuekin alderatzen dugunean. Kontuan izan, lapurteraz esaterako, lehen zein bigarren pertsonako DATekin gertatzen dela DL, baina beste hizkera batzuetan, hala nola, Lekeitiokoan, lehen pertsonakoekin baino ez dela azaltzen, gorago jada esan dudana bezala —ikus 21. oin-oharra.

²⁹ (6)-ko taulan ikus daitekeen bezala, hori ez da beti horrela gertatzen, *dizute* adizkiaren ondoan, *ttizia* forma kanonikoa baitarabil, esate batera, pluraleko bigarren pertsonarako.

- (16) a. *Ni-ri marmitakoa-k gustatzen n-a-u-?
 ni-DAT marmitakoa-ERG gusta.ASP 1SG.ABS_D-B-erroa-?
 b. *Zu-ri marmitakoa-k gustatzen d-i-zu-?
 zu-DAT marmitakoa-ERG gusta.ASP BET-DM-(erroa)-2SG.DAT-?

Perpaus hauek ERG argumenturik gabeak izateak berebiziko garrantzia duela dirudi, baina hortik ez dator segidan ERG komunztadurarik ere ez dagoenik. Bereziki aztertzen ari garen Datiboaren Lekualdatzean, esate batera, kasua eta komunztadura beti bat ez datozela erakutsi nahi izan dugu. Are gehiago, X kasudun argumentua bitxia zaion komunztaduraz ere jabe daitekeela erakutsi dugu. Zergatik ez pentsatu, orduan, badela ERG komunztadura (14)-ko perpausetan, eta ERG komunztadura hori, gainera, bitxia zaion ABS argumentuari dagokiola? *ABSren Lekualdatzeaz* hitz egin genezake orduan, Albizuk datuoi buruzko balizko azalpen baten atarian behin-behinean deitu dion bezala. Honelakoxe hipotesi batek **edun/*ezan* aditz laguntzaileen agerpena arrazoitzeke bidea ematen dio Albizuri, ERG komunztadura ere ezarri behar bada, horretarako tokia **edun/*ezan* aditz laguntzaileetan aurkitzen baitaiteke, ez *izan/*edin* aditz laguntzaile ERGrik gabeetan.

Hurbilketa hau sakon aztertu beharko litzatekeen arren, zenbateraino zilegi den ikusteko, egia da Lekualdatzearen orain arteko definizioarekin, behintzat, ez datorrela bat Albizuren hipotesia, ERGren eta DATren Lekualdatzean, modu bitxian ezarritako komunztadura ABSrena baita salbuespenik gabe, ez ERGrena. Honek Lekualdatzearen definizioa bera aldatu edo, behintzat, berregokitzera eramango gintuzke, Lekualdatzea modu bitxian ezartzen den edozein komunztadurari lotuz, dela ABS dela ERG. Alabaina, definizioan baino gehiago, ERG komunztadura gabezia aurkitzen ditugu arazoak hipotesi honen ildoari jarraitzeko. Saia gaitezen, bada, honelako perpausetan ERG komunztadurarik ere ez dagoela erakusten. Jo dezagun, horretarako, adibidez, (17)-ko datu ezezkorretara:

- (17) a. *Ni-ri zu-Ø gusta-tzen n-a-u-zu
 ni-DAT zu-ABS gusta-ASP 1SGABS_D-erroa-2SGERG
 b. *Zu-ri ni-Ø gustatzen d-i-zu-t
 zu-DAT ni-ABS gusta-ASP BET-DM-(erroa)-2SG.DAT-1SG.ERG

Kontuan izan, orain artekoan —(9) edota (13)-ko perpaus ez-akusatiboetan besteren artean— hirugarren pertsonakoak zirela ABS argumentuak, pertsona-komunztadurarik ez dutenak, hain justu. Horregatik, ageriko ERG pertsona-komunztadura aurkitzekotan, lehen edota bigarren pertsonako argumentuen eskutik bakarrik izan liteke. Horrelakoak dira (17)-ko perpausak: lehenak (17a) *zu* bigarren pertsonako ABS argumentua erakusten du; bigarrenak (17b), berriz, *ni* lehen pertsonakoa, eta batean zein bestean ageriko ERG pertsona-komunztadura atzizkiak azaltzen zaizkigu —/zu/ lehenean (17a) eta /-t/ bigarrean (17b). Perpausok ez dira onargarriak gure datu-emailearentzat, eta baldintza berberetan, *erori*, *etorri* eta *iruditu* predikatudun perpausak ere ez zituen onetsi.³⁰

Datu hauek ERG pertsona-komunztadurarik ez dagoela erakusten badute ere, kontu handiz neurtu behar dira (17)-ko perpausak, agian beraiek eragozten dituen ez baita horrenbeste ERG

³⁰ Hortik dator Hondarribiko hizkerako I taulan lehen eta bigarren pertsonako ABS argumentuko adizkirik ez agertzea Yrizarren (1992-2: 434) lanean. Bertan, Sagarzazuk jasotako *nau*, *dizu*, *dio* eta abar biltzen dira, ez ordea, *nauzu*, *dizut* edota *diot*, esaterako. Taulan ageri ez diren *nauzu*, *dizut* eta abarrak datu ezezkor gisa hartu behar ditu irakurleak, honelakoak ontzat hartzen ez direlako perpaus ez-akusatiboetan.

pertsona-komunztadura agertzea bertan, *Pertsona-Kasuaren Baldintzak* pertsonen artean ezartzen dituen mugak baino —ikus Albizu (1997ab), Ormazabal & Romero (1998 2001) besteren artean. Izan ere, hizkera gehienetan, nekez elkar daitezke *niri-zu* edo *zuri-ni* perpaus ez-akusatiboetan, *Pertsona-Kasuaren Baldintzaren* ondorioz.

Pertsona-komunztadurari erreparaturik, ebidentzia behar bezain fidagarriak aurkitu ezin baditugu ere, nahikoa erakusgarri sendoak dira numero-komunztadurari buruzko datuak. Galdera bera da orain ere: ba al da ERG komunztadurarik *gustatzen nauzki/naute* edo *gustatzen ttizu/dizute* bezalakoetan? Ez dirudi. Izan ere, (12) eta (14) perpausetako adizkien */-te/* pluralgileak itxura morgologikoari begira, bederen, ERG komunztadura irudi lezakeen arren, nekez onar genezake sintaxiaren ikuspuntutik ere ERG dela. Bestalde, gogoan izan ABS komunztadura ere islatu ohi duela pluraleko bigarren pertsonako *zaudete* edota *zabiltzate* bezalako adizkietan esaterako. Gure datu-emailearen hizkeran, pluralgile morfologikoki ez-markatua dirudi beste ezer baino gehiago.

Datuen berrikusketarekin amaitzeko, */-zki-/* pluralgileari buruzko iruzkin bat besterik ez zaigu falta. Pluralgile hau ez dagokio inoiz ere ERG komunztadurari. Honetan, ABS komunztadura gardena dugula esan genezake. Ebidentzia sendoagoa inondik ere pertsona-komunztadurarena baino, eta aiez ale aipatu ditugun gainerakoekin batera, honelako perpausetan ERG komunztadurarik ez eta ERG kasurik ez dagoela baieztatzea eramango gaituena.

Gauzei honela begiratzeak beharbada oso desiragarria ez den ondorio batera garamatza, hau da, ezberdintasun nabarmenik ez dagoela *gustatzen dizu/gustatzen zaizu* perpausen artean. Badago bai aditz laguntzailearen hautaketan eta bai aditz sailaren jokabidean ere, baina ez da, gure ustez, bi perpausak eratortzeko moduan, behintzat, azpimarra daitekeen bestelako ezberdintasunik. Berriro ere, **edun/*ezan* aditz laguntzaileen hautua, *izan/*edin*-en ordez, DAT argumentuaren agerpenetik datorkigu, eta ez ERG kasu edota komunztaduratik. Jakina, fenomeno txiki eta bitxi honen zergatiak bilatu nahi izateak ez gaitu inola itsutu behar: DAT argumentua perpaus ez-akusatiboetan agertzen den hizkera gehienetan, ez da **edun/*ezan* erabiltzen ezta ABS-DAT-ERG saileko adizkirik ere. Hortaz, DAT argumentua agertzea ez da baldintza nahikoa, baina bai ezinbestekoa aditz laguntzailea modu bitxian hauta dadin. Ziur aski Hondarribiko hizkeran, aditz laguntzaile bat ala beste hautatzeko behar diren baldintzak beste hizkeretakoak ez bezalakoak dira, eta berauetan dago hizkeren arteko aldagarritasun parametrikoa.³¹

4. Azalpen bila


4.1. Datibo kasua eta komunztaduraren erkatzeaz zenbait ideia orokor

Aditz laguntzaile eta komunztadura bitxia nola azal daitekeen ikusteko, neurri handi batean DAT kasu eta komunztadurari buruzko hausnarketa orokorrari lotu behar gatzazkio, 2 atalean egin dugun bezala. Hausnarketa horretan, ezinbestekoak dira urteotan euskalarien eskutik plazaratuz joan diren zenbait lan, hala nola, Fernández (1997), Elordieta (2001), Albizu (2001)

³¹ Euskaraz *mikrofenomenoa* dirudienak agian bestelako izariak izan litzake beste hizkuntza batzuetako datuekin alderatuko bagenu.

eta Ormazabal & Romero (1998 2001) besteren artean. Hona laburbildurik dakartzadan ideiak lan hauetan oinarriturik daude hein handi batean.

Has gaitezen AS-ren barne-egituratik. AS-ren barruan, badirudi ABS sintagmak betetzen duela A-ren osagarri gunea eta espezifikatzailearena DAT sintagmak berak.³²



Intuitiboki uler dadin, ABS da A-ren lehen kasua, *Nahitaezko Kasuaren Parametroaren* formulazioen ñabarduren gaineratik, euskaraz nahitaezkoa dena, Chomsky (1993), Bobaljik (1993) edota Lakarentzat (1993). ABSz gain, A-ren *bigarren kasua* eta bigarrena bakarrik da DAT. Bigarrena diot eta ez aukerakoa, lehenago iritzi izan diodan modura (Fernández 1997), sarri askotan aukerakoa dela dirudien arren, ez delako aukerakoa beti eta salbuespenik gabe. Euskaltzaindiak (1987: 59), esate batera, DAT sintagmak aukeran ala ezinbestean dituzten aditz oinen sailkapena egin du, DAT kasuari implizituki aukerakoa ala ezinbestekoa iritzi. (19)-an, adibidez, DAT ezinbestekoa da (19a)-ko perpausean eta aukerakoa, berriz, (19c)-koan.

- (19) a. Niri sagarra gustatzen zait
 b. *Sagarra gustatzen da
 c. Niri sagarra erori zait
 d. Sagarra erori da

Bietan, alabaina, A-ren bigarren kasua da DAT, ABS kasuaren ostekoa beti, aukerakoa izan zein ez.³³ Antzera esan daiteke, gure ustez, komunztaduraz ari garela: komunztadura aurizkiak dira beti lehenik ageri direnak, eta beraien ondotik ezartzen dira komunztadura atzizkiak, bai ABS-ERG saileko adizkietan, hau da, predikatu iragankorreko perpaus arruntetan, bai ABS-DAT sailekoetan, edo nahi bada, bi argumentuko perpaus ez-akusatiboetan. Honek pentsarazten digu *nahitaezko komunztadura* (Fernández 1997) edo nahiago bada, *lehen komunztadura* dela euskaraz komunztadura aurizkien bitartez azalerazten dena, eta *bigarren komunztadura*, berriz, komunztadura atzizkiei esker erakusten dena, berdin delarik atzizki horiek ERGri edo DATri egokitzen zaizkion.

Honaino helduta egin beharreko galdera da ea zein bururekin erkatzen duen kasua ABS argumentuak eta zeinekin, berriz, DATk. Ez dirudi, printzipioz, ABSk AS-tik kanpo atera behar duenik kasua erkatzera. Hala deritzagu, behintzat, ABS argumentua hirugarren pertsonakoa denean³⁴ —gogoratu kasua erkatzeko bitarteko komunztadura buruak generabiltzan garaian ere, *AS oskolaren* barruan erkatzen genuela ABS (Fernández 1997). Hala, hirugarren pertsonako

³² ABS DAT argumentua bera baino gorago sortzen delako hipotesirako, ikus Ormazabal & Romero (1998) eta Ormazabal (2000) besteren artean.


³³ (18a)-ko perpausean ABS eta DAT kasuetan bigarrena zein den erabakitzeke pentsatu beharra dago euskaraz ez dagoela DAT sintagma soil bat erakusten duen perpausik, arruntak diren bitartean ABS bakarrekoak. Horrek garamatza pentsatzera DAT bigarren kasua dela baita ezinbestekoa den perpausetan ere, ABS delarik beti bietan lehena.

³⁴ Ziurrenik oso bestela jokatzeko dute lehen eta bigarren pertsonako ABS argumentuek. Hauek AS-tik atera beharrean daudela uste dugu.

argumentuen ABS *in situ* erkatzen dela proposatuko dugu orain ere, zeinahi A-rekiko harremanean.

Arazoa, honaino heldurik, ez da horrenbeste ABSren erkatzea bera, DATrena baino. Izan ere, badirudi nonbait, AS eta Denbora (DenbS) artean, badela tarteko buru bat, DAT kasua erkatu eta ezabatzeko bidea ematen duena. Nola erkatu bestela DAT kasu eta komunztadura? Bitarteko komunztadura buruak genituen garaian (Chomsky 1993), Komunztadura3 (KMZ3) generitzan buru horri, baina gogora ezazue orduan ere, A bera genuela DAT kasuaren erkatzailea, KMZ3-ri egozten geniolarik DAT komunztadura erkatzeko erantzukizuna.

Komunztadura buruak zokoratu eta gero, aditz txikia Sintagmaren (*aS*) espezifikatzailean sorraraziz ERG argumentua (Chomsky 1995), litekeena da DAT espezifikatzaile askotako *aS* horren baitan erkatu ahal izatea A-ren bigarren kasua dena. Hala balitz, honelakoxe egitura bati (20) esker erator liteke zeinahi perpaus.



Eztabaida orokorrean (§2.2) generabiltzan perpausik esanguratsuenak berrikustearren, honelako eratorpena egoki lekioko (5e)-ko perpaus iragankorrari (21a)-n errepikatuko duguna.

- (21) a. Nik faktura galdu dut
 b. DenbS
 3
 ERG_i Denb´
 nik [ERG/φ1] 3
 aS Denb
 3 1
 t_i a´ a Denb
 2 galdu dut
 AS a
 2 1
 ABS A A a
 faktura [ABS/φn2]

Bere ordezeko lagunari (5d), berriz, (22)-koa.

- (22) a. Niri faktura galdu zait
 b. DenbS
 3
 Denb´
 3
 aS Denb
 3 1
 DAT_i a´ a Denb
 niri [DAT/φ3] 2 galdu zait
 AS a
 2 1
 t_i A´ A a
 1
 ABS A
 faktura [ABS/φn2]

Batean zein bestean, ABS argumentua hirugarren pertsonakoa izaki, eta horregatik, inongo komuntadura tasunik —aurrerantzean φ-tasunak— erkatzeko gauza ez dena, A-ren φ2-tasun nahitaezkoak /d-/ eta /Ø-/ izenordain betegarrien bitartez erkatzen dira, hurrenez hurren (21) eta (22)-ko eratorpenetan. Bigarren komuntaduraz ari garela, haren ondotik erkatzen da dela ERGk Denb-rekin *Komuntadura egin* operazioaren bitartez (21), dela DATk a-rekin komuntadura egiten duenean (22).

Kasuei dagokienez, ERG eta DAT argumentuek (5)-eko perpausetan erakusten duten batasuna ez dago agian behar bezala islaturik (21) eta (22)-ko eratorpenetan. Baina DATren Espez-DenbS

gunerako bigarren mugimendua proposatuko bagenu, (23)-ko zuhaitz tontorraz erakusten dugun bezala, aise ikus liteke bi argumentuen egiturazko antzekotasuna. Mugimendu hau, jakina, ezin liteke Denb-ren kasuaren zilegiztapenarekin lotu, *Islapen Hatsarre Zabaldua* deitu izan denarekin baino.

- (23) a. Niri faktura galdu zait
b.

		DenbS	
	3		
	DAT _i	Denb'	
niri [DAT/φ3]	3		
	aS	Denb	
	3	1	
t _i		a' a	Denb
	2	galdu zait	
	

Nolanahi ere, ez dirudi azken mugimendu hau bi argumentuko perpaus ez-akusatibo guztietarako proposa daitekeenik, ez, behintzat, ABS DAT bera baino gorago dagoen perpausetarako. Horregatik, (23) aztertu beharreko aukera teoriko bat baino ez da, ERG eta DAT argumentuak bateratzeko bide formala eskaintzen diguna, baina behin-behinean baino proposa ezin daitekeena.

4.2. Aditz laguntzaile eta komunztadura bitxia zer ote?

DAT kasu eta komunztaduraren zilegiztapenari buruzko zenbait ideia laburbildu dut goiko atalean (§4.1). Ezberdintasunak ezberdintasun, ez dirudi *gustatzen nau/gustatzen dizu* perpausak ere abiapuntu teoriko hauetatik aparte uler daitezkeenik. Azter ditzagun atalez atal.

4.2.1. Aditz laguntzaile bitxia eta datiboaren [+MARK(atua)] tasuna

Gorago erakutsi dugunez (§3.3), **edun/*ezan* aditz laguntzaileen hautaketa bitxia da *gustatzen dizu* perpausa bi argumentuko zeinahi perpausetatik bereizten duen ezaugarri bakarra, hautaketaren ondorioz, ez baita perpausan ERG argumenturik gaineratzen —edo argumenturen baten kasua iraultzen— eta ERG komunztadurarik ere ez da ezartzen, adizkiaren itxura ikusita hala irudi balezake ere. Honek zeharka adierazten duena da *gustatzen dizu* perpausa *gustatzen zaizu* bezalakoxea dela eta eratorpen sintaktikoari begira, nolabait haren bikia dela (22b). Ezberdintasuna, hortaz, **edun/*ezan* aditz laguntzaileen hautaketa soilean datzala pentsa daiteke, eta hizkeran hizkeran hautu hori baldintzatzen duten tasun morfologikoetan.

Aditz laguntzaileen hautaketari buruzko xehetasun gehiago aurkitzeko asmotan, Albizuren (2002a) lanera jo dugu, argi bila. Albizuk bere lanean dioenez, ez dirudi oso egokia denik esatea *izan/*edin* aditz laguntzaileak direla perpaus ez-akusatiboetan hautatzen direnak, **edun/*ezan* aditzak perpaus iragankorretan aukeratzen diren bitartean, predikatu motaren eta aditz laguntzailearen arteko harremana nolabait zuzena balitz bezala.

Albizuk erakusten duenez, ez dirudi predikatua ez-akusatibo ala iragankorra izateak halaberrez dakarrenik *izan/*edin* ala **edun/*ezan* aditz laguntzaileen arteko hautua. Horrela izan beharrean, predikatua ageri den egiturak baldintzatzen du aditz laguntzaileen hautaketa, sintaxia —edo morfologia— bitarteko. Hala, esaterako, perpaus inpersonaletan eta zenbait hizkeretako egitura bihurkari-elkarkarietan ikus daitekeen bezala, *izan/*edin* aditz laguntzaileak hautatzen dira baita predikatu iragankorrekin ere, eta *subjektuak* erakusten duen kasuarekin ezinbestean loturik dago hautaketa: ABS kasuko argumentua izanez gero, orduan *izan/*edin* aditz laguntzaileak aukeratzen dira nahitaez.³⁵ Oro har, *izan/*edin* aditz laguntzaileak **edun/*ezan* aditz laguntzaileetatik bereizteko [+ERG] tasunaz balia gaitzkeela dio Albizuk, tasunak adizkian morfologia ergatiborik ba ote dagoen ala ez adierazten duelarik. Tasun horren bitartez, **edun/*ezan* aditz laguntzaileak [+ERG] direla esan daiteke, hots, morfologia ergatibodunak, eta *izan/*edin* aditzak, berriz, [-ERG], morfologia ergatiborik gabeak edo, bestela esanda, euskaraz besterik ezean erabilitakoak.

Hipotesi hau oinarri harturik, gureak bezalako datuak kontradibideak direla pentsa liteke, azken batean, *gustatzen nau/gustatzen dizu* perpausetan, **edun/*ezan* aditz laguntzailekoak izan arren, ez baitago inongo morfologia ergatiborik adizkiaren jokabidean ezta ERG kasuaz markaturiko argumenturik ere. Hala, Hondarribiko hizkeran, ez da horrenbeste ERG bera baizik eta DAT argumentua **edun/*ezan* aditz laguntzaileak perpaus ez-akusatiboetan ere zilegi egiten dituen. Nolanahi ere, hipotesia funtsean zuzena dela uste badugu, badago arazoa nola konpondu, ERG eta DAT kasuek dituzten tasun komunez baliatuz. Erantzuna, berriro ere, Albizuren eskutik etor dakiguke, kasuez egin berri duen definizio morfologikoaren bitartez (Albizu 2002b, Albizu & Eguren 2000). Egiturazko kasuak [+MARK(atua)], [+ZECHAR], [+ARG(umentua)] tasun bitarren bitartez berdefini daitezke honelaxe:

(24)	ABS	DAT	ERG	ALO
	[KASUA]	[KASUA]	[KASUA]	[KASUA]
	#	#	#	#
	[-MARK]	[+MARK]	[+MARK]	[+MARK]
		#	#	#
		[+ZECHAR] ³⁶	[-ZECHAR]	[-ZECHAR]
			#	#
			[+ARG]	[-ARG]

(24)-ri begira, ezin ukatuzkoa da kasuen artean dagoen batasun morfologikoa. Alokutiboa alde batera utzi eta guretzat oinarrizkoak diren ABS, DAT eta ERG kasuei begira, [+MARK(atua)] tasunari esker batera ditzakegu DAT nahiz ERG, ABStik ezberdinduz. Ikuspuntu honetatik, ERGren agerpenak baino gehiago, kasua [+MARK(atua)] izatea da Hondarribiko mintzairan *gustatzen nau/gustatzen dizu* perpausak zilegi egiten dituen, tasun hori bera delarik **edun/*ezan* aditz laguntzaileak hizkera honetan ahalbidetzen dituen dela DATdun perpausetan dela ERGdunetan.

³⁵ Hipotesia nolabait laburbildurik dakart hona, berez subjektu hauen kasua ez baita zehatz-mehatz ABS, kasu defektiboa baino, hau da, *izan/*edin* aditz laguntzaileen kasua ERG kasuaren eza da.

³⁶ Ez da orain nire asmoa tasun hauen eta beraien burutzapenari buruz eztabaidatzea. Proposamena dagoen-dagoenean onetsiko dut orain, tasun morfologikoen bidezko berdefinizioak kasuen arteko batasun morfologikoa egokiro erakusten duelakoan.

Hala, bada, euskara batua eta Hondarribiko mintzairaren arteko ezberdintasun parametrikoa aditz laguntzaileen definizio morfologikoan eta, horrenbestez, beraien ahoskatzeko baldintza morfologikoetan datza, (25)-ean ikus daitekeen bezala.³⁷

(25) a. Euskara batua (Albizu 2002: 17-tik jaso):

/izan/ ↔ [A]

/*edun/ ↔ [A] in env. _____ + ... + [-ZEHAR]

Erregelaren irakurbidea:

/*edun/ ahoska bedi [A] tasuna, konplexu morfologikoak [A] tasuna bera ez ezik, [-ZEHAR] tasuna (hau da, ERG edo ALOren bat) ere baldin badu barne. Baldintza bete ezean, /izan/ ahoska bedi.

b. Hondarribiko euskara:

/izan/ ↔ [A]

/*edun/ ↔ [A] in env. _____ + ... + [+MARK(atua)]

Erregelaren irakurbidea:

/*edun/ ahoska bedi [A] tasuna, konplexu morfologikoak [A] tasuna bera ez ezik [+MARKATUA] tasuna (hau da, DAT, ERG edo ALOren bat) ere baldin badu barne. Baldintza bete ezean, /izan/ ahoska bedi.

Honenbestez, aditz laguntzaileen baldintza morfologikoak aldatu egiten dira euskara batutik Hondarribiko hizkerara, eta horrek, hain zuzen ere, ahalbidetzen du **edun*/**ezan* aditz laguntzaileen hautaketa DATdun perpaus ez-akusatiboetan. ERG eta DAT kasuen [±MARK(atua)] tasunaz bien batasun morfologikoa hobeto islatzen delakoan gaude, gureak bezalako egiturak arrazoitzeko bidea emanez.


4.2.2. *Gustatzen nau kasua eta komunztaduraz erdibiturik berriro*

Honaino heldurik, aditz laguntzaile bitxiaren zergatiak argitu ditugulakoan jada, bakarrik gelditzen zaigu *gustatzen nau* perpausetan DAT argumentuak erakusten duen ABS komunztadura bitxia nola eratortzen den berrikustea. Berrikusi diot, honi dagokionez, Fernández (2001) eta Fernández & Ezeizabarrenaren (2001) ildo beretik azal daitekeelako DL baita perpaus ez-akusatiboetan ere. Lan horietara jo beharko du irakurleak hona oso laburbildurik dakargun hipotesiaren xehetasunak ezagutu nahi baditu.

Gogoan izan nahitaezkoak direla guretzat A-ren φ₂-pertsona tasunak, hau da, euskaraz aurrizki bitartez azaleratzen direnak. Nahitaezko φ₂-tasun horiek halabeharrez zilegiztatu behar dira eratorpenak huts egingo ez badu. Hirugarren pertsonako argumentuak, alabaina, ez du kasua zilegiztatzea besterik, eta *gustatzen nau* perpausetan, (21) eta (22)-koetan ez bezala, ez dago φ₂-tasunak erkatzen dituen inongo izenordain betegarririk. Estrategia horren orde, eratorpenak huts egin ez dezan, lehen pertsonako DAT argumentuak berak erkatzen ditu A-ren φ₂-pertsona tasunak jatorrizko gunean, eta Espez-*aS*-rako ondoko mugimenduan erkatuko du bere DAT kasu tasuna, kasua eta komunztaduraren erkatzea erdibituz. Honela (26b) erator daiteke, bada, *gustatzen nau* erako zeinahi perpaus (26a).

³⁷ Albizuri zor dizkiot hein handi batean formulazio bideari buruzko ohar hauek.

- (26) a. Niri faktura galdu nau
b.



Perpaus hauetako kasu eta komunztaduraren erdibitzeaz gain, gorago aditz laguntzaile bitxiaz esandakoa (§4.2.1) gaineratu behar da: DAT argumentuak edo hobe esanda, DAT kasuaren [+MARK(atua)] tasunak ahalbidetzen du **edun/*ezan* aditz laguntzaileen agerpena.

5. Ondorioak

Lan honetan erakutsi dudanez, Hondarribiko euskaraz *gustatzen nau/gustatzen dizu* perpausetan ageri den **edun/*ezan* aditz laguntzaileen hautaketa bitxia ez dagokio ERG kasu edota komunztaduraren agerpenari, DAT kasuari baino. Izan ere, aditz laguntzaileen hautaketarako behar diren baldintza morfologikoak ez dira euskara batuan edota beste hizkeretan orokorrak diren berberak, mintzaira honetan, ERG nahiz DAT kasuen [+MARKATUA] tasun morfologikoa (Albizu 2002b, Albizu & Eguren 2000) nahikoa baita Hondarribiko mintzairan **edun/*ezan* hauta daitezen.

Aipamenak

- Albizu, Pablo. 1997a. "Generalized Person-Case Constraint: A Case for a Syntax-Driven Inflectional Morphology". In A. Mendikoetxea & M. Uribe-Etxebarria (arg.), *Theoretical issues on the Morphology-Syntax Interface*. ASJUren Gehigarriak XL. Bilbo & Donostia: EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia. 1-34.
- Albizu, Pablo. 1997b. *The Syntax of Person Agreement*. Doktorego Tesia, USC, Los Angeles.
- Albizu, Pablo. 2001. "Datibo sintagmen izaera sintaktikoaren inguruan: eztabaidarako oinarrizko zenbait datu". In B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta Komunztaduraren gainean. On Case and Agreement*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua. 49-69.
- Albizu, Pablo. 2002a. "Sobre la distribución sintáctica de las formas finitas del verbo vasco: condicionamiento léxico y sintáctico". *ASJU*. Inprimatzen.

- Albizu, Pablo. 2002b. “Basque Verbal Morphology: Redefining cases”. In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J.A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Bilbo: EHU. 1-19.
- Albizu, Pablo & Luis Eguren. 2000. “Ergative Displacement in Basque”. In W. U. Drexler et al. (arg.), *Morphological Analysis in Comparison*, Current Issues in Linguistic Theory 201. Amsterdam: John Benjamins. 1-25.
- Artiagoitia, Xabier. 2000. *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Artola, Fernando (“Bordari”). 1981. “Hondarribiko mintzairan bertako berri”. *Euskera* XXVI, 295-303.
- Bärh, Gerhard. 1926-34. “Estudio sobre el verbo guipuzcoano”, *RIEV* XVII, 370-394.
- Bobaljik, David. 1993. “On Ergativity and Ergative Unergatives”, In C. Phillips (arg.), *Papers on Case and Agreement II*. MIT Working Papers in Linguistics 19. Cambridge, Mass.: MITWPL. 45-88.
- Bonaparte, Luis Luciano. 1869. *Le verbe basque en tableaux*. [Berrarg. in Bonaparte, Luis Luciano. 1991. *Opera omnia vasconice* (I). Bilbo: Euskaltzaindia. 221-242.
- Chomsky, Noam. 1993. “A Minimalist Program for Linguistic Theory”. In K. Hale & S.J. Keyser (arg.), *The View from Building 20. Studies in linguistics in honor of Sylvain Bromberger*. Cambridge, Mass.: MIT Press. 1-52.
- Chomsky, Noam. 1995. *The Minimalist Program*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Elordieta, Arantzazu. 2001. “Double Object Constructions and Neutral Order in Basque”. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT. 49-107.
- Etxaburu, J. M. (“Kamiñazpi”). 1981. “Hondarribiko euskarari buruz”. *Euskera* XXVI. 305-311. Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak II*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Fernández, Beatriz. 1997. *Egiturazko kasuaren erkaketa euskaraz*, EHUko Argitalpen Zerbitzua.
- Fernández, Beatriz. 2001. “Absolutibo komuntaduradun ergatiboak, absolutibo komuntaduradun datiboak: Ergatiboaren Lekualdatzetik Datiboaren Lekualdatzera”. In B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta Komuntaduraren gainean. On Case and Agreement*, Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua. 147-165.
- Fernández, Beatriz & Pablo Albizu. 2000. “Ergative Displacement in Basque and the Division of Labor between Morphology and Syntax”. In J. Boyle & A. Okrent (arg.), *Proceedings of the Chicago Linguistic Society 36, Volume 2: The Panels*. Chicago: Chicago Linguistic Society. 103-117.
- Fernández, Beatriz & Marijose Ezeizabarrena. 2001. “Itsasaldeko solezismoa, Datiboaren Lekualdatzearen argipean”. *Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV Biltzarra, P. Lafitteren Sortzearen Mendemuga*, Baiona, irailak 20 eta 21.
- Fraile Ugalde, Idoia & Ainhoa Fraile Ugalde. 1996. *Oiartzungo hizkera*. Oiartzun: Oiartzungo Udala-Mugarri.
- Hale, Kenneth. 2001. “Eccentric Agreement”. In B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasu eta Komuntaduraren gainean. On Case and Agreement*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua. 15-48.
- Holmer, Nils M. 1964. *El idioma vasco hablado. Un estudio de dialectología euskérica*. Donostia: ASJU.
- Hualde, José Ignacio & Jon Ortiz de Urbina. 2001. *A Grammar of Basque*. Eskuizkribua. University of Illinois at Urbana-Champaign & Deustuko Unibertsitatea, Illinois & Bilbo.
- Laka, Itziar. 1988. “Configurational heads in inflectional morphology: the Structure of the Inflected Forms in Basque”. *ASJU* 32. 343-365.
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Donostia: Elkar.

[1979an berrargitaratua.]

- Letamendia, Juan Antonio & Txomin Sagarzazu. 1992. "Hondarribiko hizkera Roque Jazinto Salazarren predikuan (1778)". *Iker* 7. Bilbo: Euskaltzaindia. 497-533.
- Ormazabal, Javier. 2000. "A Conspiracy Theory of Case and Agreement". In R. Martin et al. (arg.), *Step by Step: Papers in Honour of Howard Lasnik*. Cambridge, Mass.: MIT Press. 235-260.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 1998. "On the syntactic Nature of the me-lui and the Person-Case Constraint." *ASJU* 32, 415-433.
- Ormazabal, Javier & Juan Romero. 2001. "A brief description of some agreement restrictions". In B. Fernández & P. Albizu (arg.), *Kasua eta Komunztaduraren gainean/On Case and Agreement*. Bilbo: EHUko Argitalpen Zerbitzua. 215-240.
- Oyharçabal, Beñat. 1989. "Izenordain espletiboak eta euskal aditzaren morfologia". In P. Salaburu (arg.), *Sintaxi Teoria eta Euskara*. Donostia: EHUko Argitalpen Zerbitzua. 109-120.
- Sagarzazu, Txomin. 1994. "Hondarribiko mintzairazko ikuspegiak: Larramendi, Bonaparte, Azkue". In R. Gómez & J.A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologiako Kongresua (Donostia, 1991ko irailak 2-6)*, ASJUren Gehigarriak XXVIII. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 589-631.
- Trask, Robert T. 1977. "Historical Syntax and Basque Verbal Morphology: Two Hypothesis". In W. A. Douglas, R. W. Etulain & W. H. Jacobsen (arg.), *Anglo-american Contributions to Basque Studies. Essays in Honor of Jon Bilbao*. Reno: Univ. of Nevada. 203-425.
- Yrizar, Pedro de. 1981. *Contribución a la Dialectología de la Lengua Vasca*, 2 ale. Donostia: Gipuzkoako Kutxa.
- Yrizar, Pedro de. 1992. *Morfología del Verbo Auxiliar Alto Navarra Septentrional*, 2 ale. Iruñea: Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernu.

Hizkuntzalaritza Orokorra
Espainiar Filologia Saila
Filologia, Geografia-Historia Fakultatea
EHU
Unibertsitateko ibilbidea, 5
01006 Gasteiz
Euskal Herria

fepfep@vc.ehu.es